

70. FITXA 0-3 urte arteko haur-eskolen toki-korporazio titularrentzako dirulaguntzak – 2024 - 2025 ekitaldirako

Nori zuzendua: Haur-eskolen titularrak diren Euskal Autonomia Erkidegoko udalak (betiere haur-eskolak EAEko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautzen dituen abenduaren 17ko 297/2002 Dekretua indarrean sartu aurretik sortu baziren) eta Gizarte Laguntzako Institutu Nazionalak bere garaian transferitutako haur-eskolen titular diren udalak, betiere eskaerak aurkezteko epea hasten denean ez badute bat egin Haurreskolak Partzuergoarekin.

Sarbide-esteka: [0-3 urte arteko haur-eskolen titular diren toki-korporazioentzako dirulaguntzak \(2024-2025\). -Eusko Jaurlaritza](#)

Erreferentziatzko araudia: [AGINDUA, 2024 urriaren 15ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez, 0-3 urte arteko haur-eskolen toki-korporazio titularrentzako dirulaguntzen deialdia egiten baita 2024-2025 ekitaldirako.](#)

Eremuak: Hezkuntza

Zenbatekoa: 3.500.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/01/27

Laburpena

Deialdi honen xedea da 0-3 urte arteko haur-eskolen titularrak diren Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dirulaguntzak ematea.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Agindu honetan aipatzen diren dirulaguntzak 0-3 urte arteko udal titulartasuneko haur-eskolen **mantenu-kostuak finantzatzeko** laguntza gisa emango dira.

Gastuetarako aldi hautagarria

2024 - 2025 ikasturtea.

Laguntzen zenbatekoa

Haur bakoitzeko moduluak, tarteen arabera, honako hauek izango dira:

Tartea	Modulua	Dirulaguntza
0 urte	7.994,44 €	4.796,66 €
urte 1	4.919,65 €	3.197,77 €
2 urte	3.553,08 €	3.553,08 €